LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Udalak Uraren Ziklo Integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortziaren esku utziko du

Herritar Agurgarriak:

Apirilaren 1etik aurrera, Larraulgo uraren ziklo integrala Gipuzkoako Ur Kontzortzioaren esku egongo da. Urrats estrategiko honek udalerriaren ur-kudeaketa eredua aldatuko du, izan ere, konsortzioak bere gain hartu ditu zerbitzuarekin loturiko eskumen eta betebehar guztiak.

Bere gain hartuko dituen arduren artean daude:

- Uraren kantitatea eta kalitatea bermatzea.
- Hornidura eta saneamendua sareen mantetze eta berritze mailakatua.
- Sareko matxuren kudeaketa eta konponketa.
- Kontagailuen irakurketa.
- Fakturazioa eta kobrantza.
- Herritarrei zuzendutako 24 orduko arreta-zerbitzua eskaintzea.
- Harremaneatarako : 900 32 22 22 edo 943 00 22 22 zenbakira deitu behar da. Informazio gehiago eta bulego birtualareko sarbidea www.gipuzkoaur.eus atarian.

Eskualdaketarekin batera, uraren tarifetan aldaketa egongo da, kontsortzioaren prezioak orain arte udalak kobratzen zituenak baino altuagoak direlako. Hala-ere, prezio-igoera horrek zerbitzuaren hobekuntza esanguratsua ekarriko du, eta tarifaren zati batek sareen mantentzea eta berrikutzarako beharrezko inbertsioak barne hartzen ditu.

Aldaketaren eragina arintzeko asmoz, Udalak hobariak aplikatuko dizkie etxetiarrei lehen hiru urteetan. Horrela, Udalak egun dituen tarifen eta kontsortzioak jarriko dituen prezioen arteko diferentziari, ondorengo hobaria aplikatuko zaizkio:

%%75eko hobaria 2026an

%50eko hobaria 2027an

%25eko hobaria 2028an

Urteko kontagailuen lehenengo irakurketa egin ondoren, kontsortzioak kontagailu guztiak aldatuko ditu berriak jartzeko.

Aipatu beharra dago kontsortzioaren tarifak kontagailuaren kalibrearen arabera aldakorrak direla. Hori dela eta, lehenengo fakturan prezio merkeena aplikatuko dute, kalibre txikienari dagokiona. Ondoren, kontagailu aldaketa egin aurretik, norbaitek kalibre handiagakoa balu, aldatzeko aukera emango diote. Kontagailuaren kalibrea benetan etxebizitzak dituen

beharretara doitzea komeniko da. Edozein kasutan momentua iristen denean kontsortzioak beharrezko informazioa zabalduko du.

Aurrez esan bezala , 24 orduko arreta-zerbitzua dauka gipuzkoako ur-kontsortzioak eta edozein zalantza edo arazoren aurrean 900 32 22 22 edo 943 00 22 22 deitu.

Besterik gabe, agurtzen naiz.

Larraulen, 2026ko martxoaren 12an.

Alkatesak

LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

El Ayuntamiento de Larraul delegará la gestión del Ciclo Integral del Agua en el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa

Estimados vecinos,

A partir del 1 de abril, el ciclo integral del agua de Larraul se pondrá en manos del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa. Este paso estratégico cambiará el modelo de gestión del agua del municipio, ya que el consorcio asumirá todas las competencias y obligaciones relacionadas con el servicio.

Entre las responsabilidades que asumirá están:

- Garantizar la cantidad y calidad del agua
- Abastecimiento y saneamiento en mantenimiento y renovación progresiva de redes
- Gestión y reparación de averías
- Lectura de contadores
- Facturación y cobro
- Ofrecer un servicio de atención 24 horas dirigido a la ciudadanía. Para los contactos hay que llamar al 900 32 22 22 o al 943 00 22 22. Más información y acceso a la oficina virtual en www.gipuzkoaur.eus.

La transmisión irá acompañada de un cambio en las tarifas del agua, porque los precios del consorcio son más altos que los que hasta ahora cobraba el ayuntamiento. Sin embargo, este incremento de precios supondrá una mejora significativa del servicio, y la tarifa incluye el mantenimiento de redes y las inversiones necesarias para la renovación.

Con el objetivo de paliar el impacto del cambio, el ayuntamiento aplicará bonificaciones a los propietarios durante los primeros tres años. A la diferencia entre las tarifas actuales y los precios que establezca el Consorcio, se le aplicará la siguiente bonificación:

Bonificación del 75% en 2026

Bonificación del 50% en 2027

Bonificación del 25% en 2028

Tras una primera lectura de los contadores anuales, el consorcio cambiará todos los contadores para colocar los nuevos.

Hay que señalar que las tarifas del consorcio son variables según el calibre del contador. Por ello, en la primera factura aplicarán el precio más barato, el correspondiente al menor calibre. Posteriormente, antes de realizar el cambio de contador, si alguien tuviera un calibre mayor, le permitirán cambiarlo. Conviene que el calibre del contador se refiera a sus necesidades reales en la vivienda. En cualquier caso, cuando llegue el momento, el consorcio difundirá la información necesaria.

Como se ha indicado anteriormente, el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa dispone de un servicio de atención 24 horas y ante cualquier duda o problema puede llamar al 900 32 22 22 o al 943 00 22 22.

Sin mas, atentamente,

Larraul a 12 de marzo de 2026.

La Alcaldesa